

Herri Aldizkaria Lotumotz

ZINTZO-MINTZO
ELKARTEA

1.993.eko IRAILA

SANTA ANASTASIA JAIAK 1993



Leire Santillan Luzuriaga



Gorka Ojanguren

*Azkenik heldu dira urtero bezain fin
aurtengoan badugu mila zeregin
trikitilari eta txaranga denekin
kalean gora behera soinu alaiekin.
Jende dena berdin
ekin eta ekin
kontuz parrandekin
hamaika ahalegin
Urretxun giro on bat agertu dadin.*

*Beteko al zaizkigu bakoitzaren nahiak
ezin burutik kendu gure ideiak
prestu daude dultzainak eta erraldoiak
denak batera pozik herriko koadrilak
momentu alaiak
bizi ta lasaiak
horiek garaiak!
ahazteko zailak
lau egun dira eta, gozatu jaiak,*

Zein hiru gauza beharko zenituzke festak ondo pasatzeko?




Santi Gutierrez

1. Dirua
2. Lagun talde ederra
3. Inorekin arazorik ez izan



Begoña Larrañaga

1. Pakea izatea
2. Osasuna
3. Ambiente ona egotea



Oier Diaz de Espada

1. Neskak
2. Barrakak
3. Dirua



Iosune Perez

1. Ambiente ona
2. Musika
3. Taska ederrak



Pospolo

1. Neska bat
2. Taberna bat
3. Txistu bat

ONGIETORRIAK

«XX. mendeko azken hamarkada honetan gaitz honek jota hiltzeko arriskua duen jendetza erdia ez dago oraingoz kutsaturik. Gure zeregina argi eta garbia da: ez utzi jendea, bere ezjakintasuna dela medio, gaitzak jota hiltzen»

Luc Montagnier eta Saad Khoury



Argazkiak: Sehas

Luc Montagnier eta Saad Khoury-ri jarraiki, Paco, Domi, Santi eta aurrerantzean bilduko zaizkien lanak hiru ardatz izango ditu: informazioa eman, elkarlagundu eta gizarte honetan HIESA (ingelesez AIDS, gaztelaniaz SIDA) gaitz normalizat hartua izan dadin borrokatu.

«Jende gehienak bestela pentsatu arren, HIESA ez da kutsatzen erlazio normalak izanda; horretarako erlazio sexual bete-beteak eman beharko lirateke»

Eritzi publikoarentzat gaitza eta drogomenpekotasuna edota homosexualitatea batera doaz. Egia da giza-talde hauek direla printzipioz arrisku handiena dutenak, baina, era berean, egia da ere, kontu piska batekin ez ibiltzera, edozein kutsa daitekeela. «Pertsona normal»-en artean gero eta kasu gehiago ematen ari dira, eta pertsona normalak direnez (ez dira ez drogatzaileak ezta homosexualak ere), ez dute odol analisisirik zertan egin behar eta hor ditugu, beraien ezjakintasunean kutsatzaile ez kontrolatu bihurtuak.

Gaur egun, odola ateratzen zaigunean, oso normala da glucosa, hematiak, kolesterola, e.a. eskatzea. Horrekin diabetes, anemia eta zenbait gaitzen berri izan dezakegu. Paco, Domi eta Santik, eta piskanaka-piskanaka gizarte osoak ere, hori eskatzen dugu: urtean behin gutxienez, odol analisis bat egin eta jakin beste pertsona batzuk kutsatzeko arriskua dugun ala ez.

Garai batean sifilis eta antzeko gaitzekin gertatzen zena gertatzen ari da HIESAren, bereziki Urretxu eta Zumarragan, ostrukarena egiten ari gara, ematen du hemen ez dagoela kutsatutakorik, lotsa edo auskalo zergatik izkutatu egiten dugu izkutatu behar ez dena. Eta horrela, kutsatuta egote hori izkutatzen badugu, nola ez da kutsatuko gero eta jende gehiago?

HIESAren zabaltzea eragozteko jakin behar da lehenbizi zeintzuk gauden kutsatuta eta jende gehiago kutsa ez dadin neurriak hartu. Ez da hain zaila, ez?

Bi herriotan ez dakigu zer gertatzen den, beste zenbait herritan ez bezala senideek gorde egiten dute gaitza, lotsatu egiten dira, nonbait. Eta gordetze honek ez du batere laguntzen egoera normalizatzen.

Beldurrak harrotu eta elkarrengana biltzea da Paco, Domi eta Santik eskatzen dutena. Horretarako Santanastasiak pasa ondoren informazio kanpaina bat eramango dute aurrera. Dena den, edozein informazio jaso ahal izateko Urretxuko Kultur Etxean biltzen dira astelehen, asteazken eta ostiraletan. Oraindik ez dute telefonorik baina aurki jarriko diete. Bitartean Arrasateko bat eman digute: 79.26.99.

Bukatzeke, festetan txosna bat jarri behar dute hiru helburu nagusirekin: dirua atera, informazioa eman eta preserbatiboak banatu. Oso gutxi daude eta txosnan lan egiteko besterik ez bada ere jendea inguratzea eskertuko lukete.

Festetako alde ezkutua




Argazkiak: Bego



ORAIN URTEBETE

Argazkiak: Kike



Argazkia: Jose Mari Perez

Euskal Jaiaren sorreran parte hartutako «Legazpi kale» kuadrilako Jose Mari Perez-ekin solasean aritu gara eta, berriz ere, gogora ekarri dizkigu garai hartako zenbait kontu.

Jose Marik dioenez, haseran ohiturazko lelokeriatzat kontsideratuak izan baziren ere, bigarren urterako jendea konturatu zen arte lan eder bat zuela begien aurrean, honela taldeen lanari bere garrantzia emanaz.

Argazkia: Jose Mari Perez



URRETXUKO EUSKAL JAIA

Gure Euskal Jaia ikustera hurbiltzen den edonork bertan sortzen den giro berezia somatzen du.

Gaur egunean horrela bada, zer esanik ez Euskal Jaiaren lehenengo urteetan, orduan Urretxuko Euskal Jaira etortzeak bertako euskal giroa, gizarte eta kultura egoera eta legez kanpoko zenbait arazo gertu-gertutik bizi ahal izatea suposatzen baitzuen.

Luistarren inguruan elkartutako Urretxuko talde bati garai hartako kezka kaleratzeko asmoz jai bat antolatzea bururatu zitzaion. Jai honen barnean karrozen ibilaldia ospatzea beharrezkotzat jotzen zen, karrozak plazaratzea jendeari arazoak azaltzeko biderik egokiena eta ederrena zela uste baitzuten. Euskal Jaiari folklore izaera hutsa ezin zitzaiola eman argi ikusten zuten ere.

Makina bat traba eta eta oztopo ondoren 1959.eko irailaren hamahiruan karrozen lehenengo ibilaldia ospatu zen. Urtez-urte ospatzen, ospea zabaltzen eta baita urtero salaketak eta mehatxuak jasaten ere jarraitu zuen Urretxuko Euskal Jaiak 1965. urtera arte, 1966. urtean gobernadore zibilak berau ospatzea debekatu zuen arte.

1967. urtetik aurrera karrozek utzitako hutsunea betetzeko Folklore ibilaldiak egin ziren baina 1968. urtean berriz ere karrozekin jarraitzeko ideia bat plazaratu zen, umorezko kabalgatak egitearena hain zuzen ere. Jendeak umorezko kabalgatak gustora ikusten zituen baina koadrilak emeki-emeki gaiak aldatzen hasi ziren, gero eta zorrotzagoak eta euskaldunagoak, iadanik 1971. urtean aurkeztutakoak ezin zitezkeen umorezkotzat jo, 1972.enean aurkeztutakoak berriz, oraindik zorrotzagoak zire, herriko gazteriak garai batean hain ospetsua izandako Euskal Jaia ospatu nahi zuten.

1974. urtean Udalak azkenean Euskal Jaia eta karrozen ibilaldia kaleratzeko dirulaguntza ematea erabaki zuen.

1975.ean izandako etenaren ondoren, guztiok dakizkigun arrazoiengatik, Euskal Jaiak tinko jarraitu du gaur egunera arte urtero-urtero karrozen ibilaldia kaleratuz koadrilen lan ikaragarriari esker.

Beraiantzat karrozak egitea ez zen denborapasa hutsa, aitzitik, Euskal Jaia geure geurea zen zerbait bezala aurkeztu nahi zuten jendearen aurrean. Guzti hartatik atseginena giroa zela diote, gainera, talde hau zumarragatarra izanik, Euskal Jaietako karrozen lehiaketa konpetitiboago bihurtzen zuten. Kuadrila honek sei urtetan zehar jardun zuen karrozak egiten, 1966. urtera arte. Urte tarte horretan bi aldiz jaso zuten saria, denboraldi batez beraien karroza bat Donostiako San Telmo Museoa egon zelarik.


Nahiz eta jende askok ez dela lan neketsua pentsatzen duen, une txarrak izaten dira, onak ere bai, noski. Txarrak, batez ere karroza aurrera zihoan heinean oinarrizko zerbait apurtzen bazen.

Hala ere merezi zuela diote, honelako lan bat egin ondoren jendearen harrera oso ona izaten baitzen.

Haseran lelokeriatzat jotakoak gero arte lan edertzat hartuak izan ziren


KARROZAK EGINDAKO KUADRILAK

- ALDIRI 1.987, 88, 89 eta 90
- ALKARTASUNA 1.959, 60, 62 eta 63
- AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA 1.987, 88, 89, 90, 91, 92 eta 93
- ANAITASUNA 1.961, 62, 63, 64 eta 65
- ANTZAMARROAK 1.990
- ANTZARRAK 1.986, 87, 88, 89 eta 91
- ARDOZALEAK 1.974
- ATERPE 1.981
- BERDIN DA 1.989 eta 90
- BEREZI 1.977
- BETI JAI 1.963, 64 eta 65
- BLAK BAT 1.992 eta 93
- BIDE BERRIAN 1.976, 77, 78, 80, 81, 82, 83 eta 84
- BIERAK 1.991 eta 92
- DANENTZAKO 1.976
- DANOK BAT 1.959, 60, 61, 62, 63, 64 eta 65
- DANTZARI 1.974, 76, 77, eta 78
- EROAK 1.984
- ERRENKA 1.993
- ETSAIAK 1.977
- EZTANDA 1.992 eta 93
- GAZTEDI BERRIAK 1.974
- GAZTELEKU 1.978, 82 eta 83
- GOI-ALDE 1.963, 64 eta 65
- GU BERTAN 1.990, 91, 92 eta 93
- HITS & FITS 1.992 eta 93
- INDRISKA 1.976, 77 eta 80
- IÑURRIAK 1.984, 86, 87, 88 eta 89
- IRAULTZA 1.979, 80, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 89, 90, 91, 92 eta 93
- IRRINTZI 1.974, 76, 77, 78 eta 79
- IRRINTZI DANTZARI TALDEA 92
- JAN DA LO 1.991, 92 eta 93
- KALAINKA 1.979, 80, 81, 82, 84, 85 eta 86
- LAGUN GAZTEAK 1.974
- LEGAZPI KALE 1.960, 61, 62, 63, 64 eta 65
- LEPAIAR 1.987, 88, 89, 90, 91 eta 92
- MIKELATS 1.974, 76 eta 77
- PIPERMIN 1.990
- SURTXURI 1.981
- TRIKITIXA 1.987, 88 eta 89
- TXANSONZ 1.983
- TXINTXARRI 1.978, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85 eta 86
- TXIRIMIRI 1.959, 60, 61, 62, 63, 64 eta 65
- TXURI BALDARRA 1.959 eta 60
- UMORE ONA 1.963, 64, eta 65
- UR KIROLAK ETA GEUREOK 1.974
- UR-GAIN 1.959, 60, 61, 62, 63, 64, 65 eta 74
- URRETXUA 1.959, 60, 61, 62, 63, 64 eta 65
- ZAKATAPROST 1.989, 90, 91, 92 eta 93
- ZALANTZA 1.982, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 89 93
- ZINTZO-MINTZO 1.993



Abuztuak 16

Udaletxeak baseak banatzen ditu




Abuztuak 27

Ideiak ekinean garatzen hasten dira, egurrezko eskeletoa eraikiz




Irailak 3

Egurrezko estruktura sare metalikoaz inguratuz doa




Irailak 6

Zakuaz alanbrea ahal den zurrunen estaliz...



Irailak 10

... eskaiolaz jartzeko arazorik ez. Azkenik karroza margoz ornatu ondoren kalerako prest



Irailak 19

Guztiori dagokigu azken emaitzaz aurrez aurre gozatzea, begi bistan ...

JAIETAN KALE SALTZAILERIK EZIN FALTA

SASIETA baserria



Argazkia: Renedo

ZINTZO-MINTZO Anagrama lehiaketa

EUSKALTEALEEN



ELKARTEA

1.993.eko irailaren bederatzian Urretxuko Kultur Etxean Zintzo-Mintzo Elkarteak 26 partaidek Anagrama lehiaketan parte hartutako 19 lanetatik Iñaki Larraza Zubieta legazpiarrarena aukeratu zuten irabazle 10 boturekin. Bigarren, 8 boturekin Julian Toquero Alvarez geratu zen. Hauexek izan ziren anagramak aurkeztu zituztenak:

- Mikel Arranz Iturrioz, urretxuarra.
- Nekane Larrañaga Madina, zumarratarra.
- Iñaki Aliste Lizarralde, azpeitiarra.
- Julian Toquero Alvarez, lasartearra.
- Gorka Garmendia Albarracín, urretxuarra.
- Eider Urrate Garmendia, urretxuarra.
- Ane Miren Agirrezabal Zabalo, urretxuarra.
- Jon Zaldúa Lazkano, zumarratarra.
- Iñaki Larraza Zubieta, legazpiarra.

OTAMOTZ aldizkaria dohainik jaso nahi nuke etxean:

Izena: _____

Abizenak: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Moztu eta bidali:

Zumarraga: Udaletxeko Euskara Zerbitzua

Urretxu: Kultur Etxea

Gero eta gehiago dira herrietako jaietan mila bitxikeria saltzera hurbiltzen diren kale saltzaileak, hauen artean marrokiarrak eta hego amerikarrak izan dira orain arte gure artean ospe handiena izan dutenak, hala ere, azken bolada honetan bestelako asko ikusteko aukera ere izaten ari gara: Jon Eli eta Itziar urretxuarrak eta Alon zeregin honetan denbora dexente daramate eta Itziar izan da, hain zuzen ere, kale saltzaileei buruz, besteak beste, luze hitzegindiguna.

Itziar Tokyora joan eta bertan kale saltzaile asko ezagutu omen zituen, ez zitzaion bizibide txarra iruditu eta horrelaxe animatu omen zen orain dela lau urte. Bere saltokian aurki daitezkeen zilarra, larruzko pultserak, zetak, boltsoak, harri bitxiak, Sri Lanka, Tailandia, Nepal eta Indiakoak dira bereziki, herrialde horietan aurkitzen omen dituzte gustoko gauzak (Itziarrek gustoko dituenak baino ez omen ditu saltzen) eta prezio onean gainera. «Askotan errezagoa izango litzateke guretzat Madrilera joan eta gauza guzti hauek majoristei merkeago erostea baina nahiago izaten dugu bertara joan eta jatorrizko gauzak erostea» dio Itziarrek.

Jendeak gustokoen duena zilarra omen da, jende gazteak batipat, beraiek baitira gehien erosten dutenak nahiz eta diru asko ez izan. Itziarren esanetan salmentak, bestalde, ez dira saltokiaren atzean jartzearekin bat egiten, bestelako «teknikak» behar izaten dira, jendea konbentzitzea ere beharrezkoa izaten omen da askotan (berak mutilak konbentzitzen omen ditu neskak baino errezago, nahiz eta ez batzuekin eta ez besteekin jardun eta jardun aritzea ez gustatu), izan ere jende askok, fidagaitzenak, ez dute erraz sinesten eraztun bat edota belarritako batzuk zilarrezkoak direla.

Hirukotea jaietz jai herri askotan ibili da, "hala ere, ez pentsa beti atsegina izaten denik, oso neketsua da"

Honez gain salmenta onak

Argazkia: Antxiñe



egiteko ezinbestekoa omen da jendea umore onez hartzea eta beraiekin berriketaldi bat egitea, «hala ere, Japonen esate baterako, honez gain erosleak oso kontutan hartzen du saltzailearen itxura» azpimarratzen digu Itziarrek, «hemen erosleak behintzat ez dira regateatzen aritzen» jarraitzen du «zenbait tokitan izugarria da, kalitatezko gauzak ia ordaindu gabe erosi nahi izaten dute kalean saltzen ari zarelako».

"Kalitatezko gauzak ia ordaindu gabe erosi nahi izaten dute kalean saltzen ari zarelako"

Euskal Herrian salmenta onak egiteko onena toki finko bat izatea omen da, jaietz jai ibiltzea baino, Zarautz adibidez udan oso toki aproposa omen da, «beste aukera bat dendak hornitzea da baina horretarako «stock» handia izan behar da eta inbertsio handiak egin». Dena den, saltokia kalean bertan jartzea ez omen da uste bezain erraza, horretarako baimena eskuratu behar da, «sarri gertatzen da udaletxeek zure saltoki txikia marrokiarrek dituzten bi saltoki handi horien artean jartzea, ia ezkutuan, beraiek eskeintzen dituzten prezioekin lehiatu ezinik, horregatik sarritan kokagune berriak bilatu behar izaten ditugu, nahiz eta baimenik ez izan» argitzen digu.

Orain arte, eta Euskal Herrian daudenetik, hirukotea jaietz jai herri askotan ibili da, «hala ere, ez pentsa beti atsegina izaten denik, oso


neketsua da, azken finean jaiak toki guztietan berdintsuak dira, gauez ibili behar izaten dugu beti eta azkenean jota bukatzen dugu erantzun digu Itziarrek lanbide honen gora-beherei buruz galdetu diogunean, «gainera jaietan egotekotan guri ere parrandan ibiltzea gustatzen zaigu, saltokiaren atzean egotea baino».

Jendeak, herriko jendeak, nola hartzen dituen ere galdetu diogu. «Jende gaztearekin ez dago arazorik» erantzun digu «baina helduek ez gaituzte oso ondo hartzen batzuetan, arlote edota alperrak baino ez garena iruditzen zaie, gutxietsiz, ez dira konturatzen hau beste edozein bizibide bezalako dela eta kale-saltzaileen artean eskulan ederrak egiten dituzten oso artesau trebeak izaten direla».

Santa Anastasia hauetan gure artean izango ote dugun galdetu diogunean ezetz erantzun digu, izan ere Itziar berriro ere abiatzeko prestatzen ari da, toki berean luze egon ezin den horietakoa baita, nahiz eta azken bolada honetan bizitoki finko batetan bizitzen hasteko aukeraz pentsatzen hasia dela aitortu, «hala ere, oraingoz behintzat han eta hemen ibiliko naizela uste dut, batean eta bestean» esanez agurtu gaitu.

"Kale saltzaileen artean eskulan ederrak egiten dituzten oso artesau trebeak izaten dira"

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa fundazioa

gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza